g:/1225

## ERABAKIA / ACUERDO

| ERAKUNDEA / ORGANO | |
|---|---|
| Udalbatzarrak/ El Pleno de la Corporación | |
| NOIZ / FECHA 2017/04/27an | Ohiko batzarrean / En sesión ordinaria |

besteak beste, honako akordioa hartu zuen, beti ere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:

**6. Proposamena: informazio-batzorde iraunkorren eraketa eta osaketa berria, Udalaren hiru arlotako (Antolamendua, Lurraldea eta Herritarrak) antolamendu eta plangintza berriaren araberakoa.**

2015-2019 legegintzaldiko udalbatza eratu ondoren, osoko bilkuraren 2015eko ekainaren 18ko erabaki bidez onartu zen alkateak batzorde informatibo eta iraunkorren sorreraren eta eraketaren inguruan egindako proposamena.

Osoko bilkuraren erabaki horren bidez sortu ziren batzorde iraunkor hauek:

1) Lehendakaritza batzordea

2) Ogasuna eta Garapen ekonomikoa batzordea. Honek bere gain hartuko zituen 7/1985 Legearen (apirilaren 2koa, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena) 116. artikuluko eskumenak Kontuen Batzorde Bereziari esleitzen dizkionarekin, beti ere eginkizun horretarako eratuta.

3) Kultura batzordea

adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el siguiente acuerdo:

**6. Propuesta: creación y composición de nuevas Comisiones informativas permanentes en concordancia con la nueva estructura organizativa y de planificación municipal en torno a los tres ámbitos creados: Organización, Territorio y Ciudadanía.**

Tras la constitución de la Corporación 2015-2019 mediante acuerdo plenario de fecha 18 de junio de 2015 se aprobó la proposición de Alcaldía sobre creación y composición de Comisiones informativas permanentes.

Mediante dicho acuerdo plenario se crearon las siguientes comisiones informativas de carácter permanente:

1) Comisión Informativa de Presidencia

2) Comisión Informativa de Hacienda y Desarrollo Económico. La misma asumiría las competencias que el artículo 116 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local atribuye a la Comisión Especial de Cuentas, constituyéndose a estos efectos para las citadas funciones en tal condición.

3) Comisión Informativa de Cultura

4) Hezkuntza eta Gazteria batzordea

5) Hizkuntza batzordea, osoko bilkuraren 2015eko azaroaren 24ko erabaki bidez Udal Hizkuntza Politika Batzordea izena hartu zuen

6) Hirigintza, Zerbitzuak eta Hiri Mantenua batzordea

7) Ingurumena batzordea

8) Gizarte Zerbitzuak eta Kultur Aniztasuna batzordea

9) Berdintasunerako batzordea

10) Trafikoa, Garraioa, Hiritarren Babesa eta Babes Zibila batzordea

Udal Kirol Patronatua tokiko erakunde autonomoa desegin eta kirolen azpisaila Udalaren egituran txertatu ondoren, osoko bilkuraren 2015eko urriaren 27ko erabaki bidez sortu zen Kirolak batzordea, hau ere iraunkorra.

Azkenik, osoko bilkuraren 2016ko uztailaren 19ko erabaki bidez sortu zen Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren jarraipenerako Batzorde berezi eta ez iraunkorra.

Gure erakundearen egungo antolamenduaren eta funtzionamenduaren inguruan hausnartu dugu eta ateratako ondorioa izan da kudeatzeko modua aldatu behar dugula eta Udalaren erakunde-antolaketa eraberritu behar dela XXI. mendeko administrazio eredura egokitzeko eta printzipio hauei erantzun ahal izateko: modernizazioa; prozeduren sinplifikazioa; erraztasuna eta eraginkortasuna; zeharkakotasuna; denboraren eta baliabideen arrazionalizazioa; zerbitzu publikoak kalitate-estandarren baitan ematea; gardentasuna; herritarren partaidetza eta herritarrek

4) Comisión Informativa de Educación y Juventud

5) Comisión Informativa del Idioma, que por acuerdo plenario de fecha 24 de noviembre de 2015 pasó a denominarse Comisión Informativa de Política Lingüística Municipal.

6) Comisión Informativa de Urbanismo, Servicios y Mantenimiento Urbano

7) Comisión Informativa de Medio Ambiente

8) Comisión Informativa de Servicios Sociales y Diversidad Cultural

9) Comisión Informativa de Igualdad

10) Comisión Informativa de Tráfico, Transportes, Protección Ciudadana y Protección Civil

Tras la disolución del Organismo Autónomo Local Patronato Municipal de Deportes y la integración de la subárea de deportes dentro de la estructura municipal, mediante acuerdo plenario de fecha 27 de octubre de 2015 se creó la Comisión Informativa de Deportes, también de carácter permanente.

Finalmente, mediante acuerdo plenario de fecha 19 de julio de 2016 se creó la Comisión Informativa especial y de carácter no permanente para el seguimiento del Plan Estratégico Errenteria 2025.

Considerando que dentro del proceso de reflexión llevado a cabo sobre la organización y funcionamiento actual de nuestra institución, hemos llegado a la conclusión de que resulta necesaria una transformación del modo de gestión municipal y de la organización institucional del Ayuntamiento para adaptarla a una administración propia del siglo XXI que responda a principios de modernización; simplificación de los procedimientos; eficacia y eficiencia; transversalidad; racionalización del tiempo y los recursos; conseguir estándares de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

duten herriko politikaren irudia hobetzea.

calidad en la prestación de los servicios públicos; transparencia; participación ciudadana y mejora de la imagen política local ante la ciudadanía.

Aurrekoari lotuta eta udal-administrazioak dituen oinarrizko hiru elementu integratzaileak aintzat hartuta –Antolaketa, Lurraldea (espazio fisikoa) eta Herritarrak (pertsonak)–, 2016ko abenduaren 23ko 1260/2016 zenbakiko alkatetza-dekretu bitartez erakunde mailan hiru arlo handi eratu dira: Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak, Udaleko sail eta azpisailak koordinaziorako eta plangintzarako hiru arlo handitan biltzeko. Dekretu hori argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 12ko GAOn eta dekretuaren berri eman zen 2017ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran.

En relación con lo anterior y considerando a la administración municipal desde el punto de vista de sus tres elementos integradores básicos: Organización, Territorio (espacio físico) y Ciudadanía (elemento humano), por medio del decreto de alcaldía nº 1260/2016 de 23 de diciembre de 2016 se han configurado tres grandes ámbitos a nivel institucional: Organización, Territorio y Ciudadanía, agrupando en tres grandes ámbitos de coordinación y planificación las diferentes áreas/subáreas municipales recogidas en el organigrama vigente. Dicha resolución se publicó en el BOG de 12 de enero de 2017 y se dio cuenta de la misma en sesión plenaria de 31 de enero de 2017.

Erakundearen beraren zein oro har herritarren onerako izango delakoan, Udalak lehenbiziko urratsak eman behar ditu egitura politikoa errazteko eta batzorde informatiboen kopurua gutxitzeko; halaber, batzordeei izena eta definizioa aldatu behar zaie, hiru arlo berrietara egokitzeko. Batzorde berri bakoitzean emango da dena delako arloaren aurreko hilabeteko kudeaketa-txostenaren eta hurrengo hilabeteko jarduera programatuen berri, batzordeen izaera informatiboa indartzeko eta, aldi berean, Udalaren kudeaketa gardentasunez erakusteko, hala oposizioari nola herritarrei. Udalaren hiru arlotako antolaketa eta hiru batzorde berrien sorrera laster irudikatu nahi da Udalaren aurrekontuaren egituran ere.

Desde el convencimiento de la utilidad tanto para la propia institución como para la ciudadanía en general, se han de iniciar los pasos que nos lleven a simplificar la estructura política dirigida a una reducción del número de comisiones informativas y una redenominación y redefinición de las mismas en concordancia con los tres ámbitos configurados. En cada una de dichas nuevas comisiones se dará cuenta del informe de gestión ordinaria del respectivo ámbito correspondiente al mes anterior y de las actividades programadas para el mes siguiente, en un ejercicio de reforzar la vertiente informativa inherente a las comisiones y que a su vez redunda en la transparencia de la gestión municipal tanto de cara a la oposición como a la ciudadanía. Dicha configuración en tres ámbitos con sus correspondientes tres comisiones informativas se quiere plasmar en un futuro cercano también en la estructura del presupuesto municipal.

Informazio-batzordeak eratzerakoan, ahal den heinean, bat etorri beharko lukete sail nagusien kopuruak eta izenek.

En lo posible, a la hora de constituir las Comisiones Informativas se ha de producir una correspondencia con el número y denominación de las grandes áreas



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

en que se estructuran los servicios corporativos.

Aipatu bezala egitura sinplifikatzearren, indarrean dagoen legeriaren eta Udal Araudi Organikoaren arabera (72. artikulua eta hurrengoak), berriz ere udal honek izaera iraunkorrez izango dituen informazio-batzordeak sortu eta horien osaketa erabaki behar du, legegintzaldi hasieran bezala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1. c artikuluak Udalbatza osatzen duten udal-taldeei ematen dien eskubidea bete eta gauzatzearren.

Al objeto de proceder a la simplificación expuesta, de acuerdo con la legislación vigente y con el Reglamento Orgánico Municipal arts. 72 y siguientes, resulta necesario proceder nuevamente a la creación y determinación de la composición de las Comisiones Informativas de carácter permanente de este Ayuntamiento, tal y como se realizó al comienzo de la presente legislatura, para dar cumplimiento y hacer efectivo el derecho que el artículo 20.1.c) de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local otorga a todos los Grupos Municipales integrantes de la Corporación.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onarturiko Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduaren 124. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, udalbatza bakoitzari dagokio informazio-batzorde kopurua eta horien izenak erabakitzea, izan Udaleko eskumen-eremuko egitura dela-eta eratuak edo gai zehatzak ikusteko xedez denboraldi baterako eratuak, baita bilerak egiteko aldizkakotasuna ere. Edonola ere, alkateak edo batzordeburuak eskumena izango du bilerak egiteko eguna eta ordua jartzeko.

Considerando que de conformidad con lo dispuesto por los artículos 124 y siguientes del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, corresponde al Pleno de cada Corporación determinar el número y la denominación de estas Comisiones Informativas de estudio y dictamen, tanto cuando nacen con vocación de permanencia por obedecer a la estructura del ámbito competencial del Ayuntamiento, como cuando nacen con carácter temporal con el objeto de tratar de temas específicos, así como la periodicidad de sesiones a celebrar, ello sin perjuicio de la facultad del Alcalde o respectivo Presidente de establecer los días y hora en que tengan lugar aquellas.

Batzorde hauek Udalbatza osatzen duten alderdi politikoek -Udalean duten ordezkaritzaren arabera- Izendatzen dituzten partaideek osatuko dituzte.

Considerando que estas Comisiones han de estar integradas por los miembros que designen los diferentes Grupos Políticos que forman parte de la Corporación, en proporción a su representatividad en este Ayuntamiento.

Idazkari Orokorrak gaiaren inguruko txosten juridikoa eman du 2017ko apirilaren 3an.

La Secretaria General ha emitido informe jurídico al respecto con fecha 3 de abril de 2017.

Lehendakaritza batzordeak aldeko txostena egin zuen

En fecha 7 de abril de 2017 la Comisión Informativa

2015eko apirilaren 7an.

Lehendakaritza batzordeko buruak proposamena egin du.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV), hau erabaki du:

AKORDIOA

**Lehena.** Eraginik gabe uztea erabaki honen azalpen-zatian adierazitako batzorde informatzaile eta iraunkorrak.

Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren jarraipenerako Batzorde berezi eta ez iraunkorrak indarrean jarraituko du osoko bilkuraren 2016ko uztailaren 19ko erabakian xedatutakoaren arabera.

**Bigarren.** Aipatutako hiru arlo handien inguruan sortutako antolamendu eta plangintza berriari jarraiki, eratzea izaera iraunkorreko ondoko informazio-batzordeak:

1) Antolaketa batzordea. Ondorengo udal sail/azpisailetako gaiak landuko dira bertan:

- Lehendakaritza saila (Idazkaritza Orokorra, Zerbitzu Juridikoak, Informazio Gizartea eta Herritarren Parte-hartzea, Kontratazio eta Ondarea, Giza Baliabideak eta Informatika)

- Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa saila (Kontabilitatea, administrazioa eta zergen ikuskaritza, eta Diruzaintza)

de Presidencia informa favorablemente el presente asunto.

Por todo ello, a propuesta de la Delegada de Presidencia.

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV)

ACUERDA

**Primero.** Dejar sin efecto las Comisiones Informativas de carácter permanente recogidas en la parte expositiva del presente acuerdo.

La Comisión Informativa especial y de carácter no permanente para el seguimiento del Plan Estratégico Errenteria 2025 seguirá vigente en los términos dispuestos en el acuerdo plenario de fecha 19 de julio de 2016.

**Segundo.** En concordancia con la nueva estructura organizativa y de planificación municipal creada en torno a los tres grandes ámbitos antedichos crear las Comisiones Informativas de carácter permanente siguientes:

1) Comisión Informativa de Organización, en la cual se tratarán asuntos relativos a las siguientes áreas/subáreas municipales:

- área de Presidencia (Secretaría General, Servicios Jurídicos, Sociedad de la información y Participación ciudadana, Contratación y Patrimonio, Recursos Humanos e Informática)

- área de Hacienda y Desarrollo Económico (Contabilidad, administración y gestión de tributos y Tesorería)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Agiritegia eta Argitarapenak

2) Lurraldea batzordea. Ondorengo udal sail/azpisailetako gaiak landuko dira bertan:

- Hirigintza, Zerbitzuak, Ingurumena eta Hiri Mantenimendua saila
- Trafikoa eta Garraioak

3) Herritarrak batzordea. Ondorengo udal sail/azpisailetako gaiak landuko dira bertan:

- Gizarte Zerbitzuak, Kultur Aniztasuna eta Berdintasuna saila
- Udal Hizkuntza Politika saila
- Hezkuntza, Gazteria eta Kirolak saila
- Kultura
- Liburutegia
- Udaltzaingoa (Hiritarren Babesa) eta Babes Zibila

**Hirugarren**. Ogasuna eta garapen ekonomikoa saila Antolaketaren arloan sartzen denez eta, ondorioz, Antolaketako batzordean, Ogasuneko batzordea desagertu egingo da. Hala ere, Udalaren indarreko Araudi Organikoaren 78. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, Antolaketa batzordeak bere gain hartuko ditu 7/1985 Legearen (apirilaren 2koa, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena) 116. artikuluko eskumenak Kontuen Batzorde Bereziari esleitzen dizkionak, betiere eginkizun horretarako eratuta. Edozein kasutan Kontuen Batzorde Berezi moduan jarduten duenean akordio honen seigarren ataleko bigarren parrafoan zehaztutako osaketa izango du.

- Archivo y Publicaciones

2) Comisión Informativa de Territorio, en la cual se tratarán asuntos relativos a las siguientes áreas/subáreas municipales:

- área de Urbanismo, Servicios, Medio Ambiente y Mantenimiento Urbano
- Tráfico y Transportes

3) Comisión Informativa de Ciudadanía, en la cual se tratarán asuntos relativos a las siguientes áreas/subáreas municipales:

- área de Servicios Sociales, Cultura de la diversidad e Igualdad
- área de Política Lingüística Municipal
- área de Educación, Juventud y Deportes
- Cultura
- Biblioteca
- Policía Local (Protección Ciudadana) y Protección Civil

**Tercero.** Con la integración del área de Hacienda y desarrollo económico dentro del ámbito de Organización y consiguientemente en la Comisión Informativa de Organización desapareciendo por lo tanto la Comisión Informativa de Hacienda como tal, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 78 del vigente Reglamento Orgánico Municipal, la Comisión Informativa de Organización asumirá las competencias que el artículo 116 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local atribuye a la Comisión Especial de Cuentas, constituyéndose a estos efectos para las citadas funciones en tal condición. Si bien cuando actúe como Comisión Especial de Cuentas lo hará de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

acuerdo con la composición prevista en el apartado sexto párrafo segundo del presente acuerdo.

**Laugarren.** Batzorde hauen eginkizunak: Udalbatzara, Tokiko Gobernu Batzordera eta Alkatetzara gaiak eraman aurretik aztertu eta irizpena eman. Azken bi organokoetan Udalbatzak eskuordeturiko aferak izango dira. Horrez gain, Udalbatzaren eskumenekoak ez diren gaietan esku hartu ahal izango dute, baldin eta organo eskumendunak batzorderen baten irizpena eskatzen badu.

**Cuarto.** Las funciones de estas Comisiones Informativas de carácter permanente, serán el estudio y dictamen previo de los asuntos que se sometan a la decisión del Pleno o de la Junta de Gobierno Local y de la Alcaldía, en estos dos últimos supuestos cuando estos órganos actúen por delegación de aquél, pudiendo intervenir también en relación con otros asuntos que no sean de la competencia del Pleno de la Corporación, cuando el órgano competente les solicite su dictamen.

Aitatu organo horien kudeaketari buruzko kontrola eta jarraipena egiteko, batzordeek euren arloko gaiei buruzko informazioa izango dute, nahiz eta ebazpena Alkateari edo zinegotzi-ordezkariei eta Tokiko Gobernu Batzarrari —haren delegazioz— tokatu. Hori horrela, informazio-batzordeetako zinegotziek eskubidea izango dute Udalbatzako Idazkari Nagusiaren zaintzapean Gobernu Batzarraren ebazpen-liburuak eta akta-liburuak zuzenean eta pertsonalki kontsultatzeko.

A efectos de control y seguimiento de la gestión de los órganos a los que anteriormente se ha hecho referencia, las Comisiones Informativas tendrán conocimiento del resto de los asuntos pertenecientes a su ámbito cuya resolución corresponda al Alcalde o a las y los Concejales delegados y a la Junta de Gobierno Local por delegación de aquel y en este sentido se reconoce el derecho de todas y todos los Concejales miembros de las Comisiones Informativas de poder consultar, directa y personalmente, los libros de resoluciones y los libros de actas de la Junta de Gobierno custodiados en la Secretaría General de la Corporación.

**Bosgarren.** Batzorde hauek —Kontuen berezia eta Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren jarraipenerako Batzorde berezi eta ez iraunkorra izan ezik— hilero egingo dituzte ohiko bilerak Udal Araudi Organikoan ezarritakoari jarraiki. Edonola ere, aurreikuspenen arabera, batzorde bakoitza eratzeko garaian ezarriko da egutegia, eta aparteko bilerak egin ahal izango dira batzordeburuak erabaki edo legezko batzordekideetatik gutxienez laurden batek eskatuz gero.

**Quinto.** Estas Comisiones, a excepción de la Especial de Cuentas y la comisión informativa especial y de carácter no permanente para el seguimiento del Plan Estratégico Errenteria 2025, celebrarán reuniones ordinarias de carácter mensual, de acuerdo con el régimen de sesiones establecido por el Reglamento Orgánico Municipal y con las particularidades que, en ejecución de sus previsiones, establezca cada una de las Comisiones en su sesión constitutiva, pudiendo celebrar sesiones extraordinarias cuando su Presidenta o Presidente lo decida, o cuando lo solicite la cuarta parte, como mínimo, de su número legal de

miembros.

Funtzionamendua: Udal Araudi Organikoan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluan, II. kapitulua, 3. atalean, 2. azpiatalean eta, haien osagarri diren 2568/1986 Errege Dekretuaren —azaroaren 28koa— 134tik 138. artikuluetan aurreikusitakoa, Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa onartzen duena.

Su funcionamiento se ajustará a lo previsto en el Reglamento Orgánico Municipal y en el Título Preliminar, Capítulo II, Sección 3ª, Subsección 2ª de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y, supletoriamente, por lo que prevén los artículos 134 a 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el cual se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

**Seigarren**. Akordio honen berri ematea udal talde politikoei. Bertan oroitaraziko zaie Antolaketa, Lurraldea eta Herritarren batzordeetako ordezkariak izendatu behar dituztela ondorengo eran: EHBilduk hiru ordezkari izango ditu; hiru PSOE-EE (PSOE)k, hiru Errenteria IrabaziZek eta bi EAHJ-PNVk. Behin izendapena egindakoan, Udalbatzaren idazkariari jakinaraziko zaio akordioa hartzen denetik bost eguneko epean, eta gero, Alkate jaunak dekretu bidez izendatuko ditu.

**Sexto.** Comunicar este acuerdo a los diferentes Grupos Políticos Municipales, haciéndoles saber que deberán designar sus representantes en las Comisiones de Organización, Territorio y Ciudadanía en la siguiente proporción: tres representantes de EHBildu, tres representantes de PSE-EE (PSOE), tres representantes de Errenteria IrabaziZ y dos representantes EAJ-PNV, notificándolo por escrito a la Secretaria General de esta Corporación en el plazo de cinco días a contar desde la adopción del presente acuerdo, quedando facultado el señor Alcalde para, mediante Decreto, proceder a su nombramiento.

Halaber, Kontuen Batzorde Berezian eta Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren jarraipenerako Batzorde berezi eta ez iraunkorrean udal talde politikoek ordezkariak izendako dituzte ondorengo eran: EHBilduk bi ordezkari izango ditu; bi PSOE-EE (PSOE)k, bi Errenteria IrabaziZek eta bat EAHJ-PNVk.

No obstante, en la Comisión Especial de Cuentas y en la Comisión Informativa especial y de carácter no permanente para el seguimiento del Plan Estratégico Errenteria 2025 los Grupos Políticos Municipales designarán sus representantes en la siguiente proporción: dos representantes de EHBildu, dos representantes de PSE-EE (PSOE), dos representantes de Errenteria IrabaziZ y un representantes EAJ-PNV.

**Zazpigarren.** Erabaki honek ez du eraginik izango egoki diren tramite administratiboak egin ondoren sortutako batzorde berriak eratzeko saioak egiten diren arte; hartara, ordura arte egungo batzordeak egongo dira indarrean.

**Séptimo.** El presente acuerdo no producirá efectos hasta que previos los trámites administrativos correspondientes no se celebren las sesiones constitutivas de las nuevas comisiones creadas y por lo tanto hasta ese momento seguirán en vigor

las comisiones actuales.

**Zortzigarren.** Erabaki honen berri ematea Udaleko sail eta azpisail guztiei, egoki diren ondorioak izan ditzan.

**Octavo.-** Comunicar este acuerdo a todas las áreas y subáreas municipales a los efectos oportunos.

**Bederatzigarren.** 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea akordio honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

**Noveno.** Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en lo que se refiere a la publicidad activa de los aspectos regulados por este acuerdo.

**DEKRETUA.-** Interesatuei aurreko erabaki honetan agintzen denaren berri emango zaie.

**DECRETO.-** Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Errenteria Udaleko Alkate-Lehendakariak agindu eta sinatzen du. Ziurtatzen dut.

Lo manda y firma el Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Errentería. Certifico.

Errenterian, 2017ko apirilaren 28an

Alkate-Lehendakaria

Idazkari Nagusia
La Secretaria General

DILIGENTZIA.- Data honetan agindutakoa betetzen da, ziurtatzen dut.

DILIGENCIA.- Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico.

Idazkari Nagusia
La Secretaria General



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net